



**ADIKZIOEN TRATAMENDURAKO DIRU-LAGUNTZAK
ARAUTZEN DITUZTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK**

1. artikulua. Justifikazioa

Aretxabaletako udalak, adikzioek sortzen dituzten arazoak kontuan hartuz eta gizarte osasuntsuagoa lortzeko asmoarekin, laguntza eman nahi die desohitze tratamenduetan hasten diren herritarrei. Tratamendu zentroek euren eskaintza profil eta egoera berrietara egokitu behar izan duten moduan, guk ere egungo egoerara egokitzeko beharra ikusten dugu. Horrek, alde batetik, tratamendua behar duten nerabeak eta euren familiak kontuan hartzea eskatzen digu. Izan ere, kontsumo goiztiarrek edo substantzien erabilera arazotsuek eragin zuzena dute edo izan dezakete eskola porrotean, jarrera deliktiboetan edo portaeraren nahasmenduan. Eta, bestalde, substantzieko menpekotasuna ez ezik, substantziarik gabeko bestelako menpekotasunak ere kontuan hartu behar ditugu: ludopatiak, teknologia berriko menpekotasunak, etabar.

2. artikulua. Xedea

Horrelako egoera batean dauden Aretxabaletako bizilagunei sarbidea erraztea EAEko tratamendu zentro publiko eta kontzertatuetan.

Deialdi honetako laguntzak Aretxabaletako Udalak 2022ko martxoaren 9ko osoko bilkuran onartutako 2022-2024 ekitaldirako dirulaguntzen plan estrategikoan aurreikusita daude.

3. artikulua. Onuradunak

Adikzioengatik edota gazterik hasitako kontsumoen ondoriozko arrisku jarrerengatik, 2023ean, tratamendu programa batean dabiltzan Aretxabaletako bizilagunak.

Era berean, laguntzen onuradun izango da afektatuaren jarraipena egingo duen pertsona (senidea edo laguna).

Betiere, Gizarte Zerbitzuetako batzordeak ahalmena izango du aurkeztu daitezkeen kasu berezi guztiak aztertzeko.

4. artikulua. Laguntza motak

Laguntzak, Aretxabaletatik tratamendu zentro publiko edo kontzertatuetaraino joateak eragindako garraio gastuak ordaintzeko izango dira. Garraio gastutzat hartzen dira garraio publikoan nahiz norberaren ibilgailuan egindakoak, baina ordaintzeko orduan bi faktore hauek

**BASES ESPECÍFICAS QUE REGULAN LAS AYUDAS
ECONÓMICAS PARA TRATAMIENTO DE ADICCIONES**

Artículo 1. Justificación

El Ayuntamiento de Aretxabaleta, consciente de los problemas que ocasionan las adicciones, y con el objeto de fomentar una sociedad más sana, quiere apoyar a aquellos vecinos y vecinas que inicien un proceso de deshabitación. Así como los centros de tratamiento se han visto obligados a adaptar su oferta de tratamiento a los nuevos perfiles y situaciones, nosotros también vemos la necesidad de adecuarnos a la situación actual. Esto supone, por un lado, tener en cuenta la población adolescente que necesita tratamiento por consumos precoces o usos problemáticos de sustancias, que inciden o pueden incidir sobre el fracaso escolar, conductas delictivas o trastornos de comportamiento, así como a sus familias. Y por otro, tener en cuenta, no solo la dependencia a distintas sustancias, sino también la que no requiere sustancias: ludopatía, dependencia a nuevas tecnologías, etc.

Artículo 2. Objeto

Facilitar el acceso a la población de Aretxabaleta que se encuentre en alguna de estas situaciones, a los centros de tratamiento públicos o concertados de la CAPV.

Las ayudas de la presente convocatoria se encuentran previstas en el Plan Estratégico de Subvenciones aprobado por el pleno de fecha 9 de marzo de 2022 para el período 2022-2024

Artículo 3. Personas beneficiarias

Vecinos y vecinas de Aretxabaleta que se encuentren realizando, durante el año 2023, un programa de tratamiento por problemas de adicciones o conductas de riesgo fruto de consumos precoces.

El acompañante (familiar o amigo/a) que realice el seguimiento de la persona afectada se beneficiará de las ayudas del mismo modo.

No obstante, la comisión informativa de Servicios Sociales queda facultada para estudiar todos aquellos casos especiales que pudieran presentarse.

Artículo 4. Tipos de ayuda

Las ayudas se destinarán a cubrir los gastos de transporte derivados de la asistencia a alguno de los centros públicos o concertados. Se consideran gastos de transporte tanto los realizados en transporte público como en vehículo propio desde el municipio de Aretxabaleta hasta el centro



hartuko dira kontuan: gehienez bi pertsonak (afektatuak eta laguntzaileak) hilean egindako bidaia kopurua, eta txartela erabiliz garraio publikoak duen kostua.

Kasu berezietan, terapia edo tratamendu saioetara joateagatik sortutako gastuak ere diruz lagundu ahal izango dira.

5. artikulua. Baldintzak

Diru-laguntza eskabidea egitean, Aretxabaletan erroldatuta egon behar du eskatzaileak.

Tratamendu programan gutxienez bi hilabetez egon ostean eskatu ahal izango dira diru-laguntzak. Kontzesioak atzera eraginezko izaera izango du.

6. artikulua. Onuradunen obligazioak

Diru-laguntzari eragiten dion aldaketarik gertatuz gero tratamenduan dagoen pertsonaren edo bere familiakoen egoeran (adibidez, tratamendua bukatzea edo bertan behera uztea), horren berri eman beharko da Udal Gizarte Zerbitzuetan, aldaketa gertatu denetik gehienez ere 30 eguneko epean.

7. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Diru-laguntza jaso nahi duten pertsonak eskaera-inprimakia bete (I. Eranskina) eta aurkeztu beharko dute udaletxean. Horrekin batera, honako dokumentazio hau erantsi beharko dute:

- a) Tratamendu Zentroak egindako ziurtagiria, non adieraziko den tratamenduan gutxienez 2 hilabetez aritu izana
- b) Gizarte Zerbitzuetako batzordeak beharrezko jo dezakeen beste edozein agiri.

8. artikulua. Aurrekontua

Diru-laguntza deialdi honen zenbatekoa 3.000 €-koa izango da, eta udal-aurrekontuko 0401.480.231.80.01.2023 partidatik emango da.

de tratamiento; si bien, a efectos de concesión de las ayudas se tendrán en cuenta el número de viajes mensuales, máximo de dos personas (persona afectada y su acompañante), en función del coste del transporte público con tarjeta.

En casos especiales, también podrán ser objeto de subvención los gastos derivados por asistencia a sesiones de terapia u otros tipos de tratamientos.

Artículo 5. Requisitos

La persona solicitante deberá estar empadronada en Aretxabaleta en el momento de presentar la solicitud de ayuda económica.

Se podrán solicitar ayudas económicas a partir de 2 meses de permanencia en el programa de tratamiento. La concesión tendrá carácter retroactivo a la fecha del inicio del tratamiento.

Artículo 6. Obligaciones de las personas beneficiarias

Las modificaciones que puedan producirse en la situación de las persona en tratamiento y en las personas familiares, que puedan tener relación con las ayudas objeto de la presente normativa (por ejemplo, terminar el tratamiento o dejarlo), deberán ser comunicadas y debidamente acreditadas a la unidad administrativa de Servicios Sociales del Ayuntamiento en el plazo máximo de 30 días desde que se hayan producido.

Artículo 7. Documentación a aportar

Las personas que estén interesadas en percibir las ayudas económicas reguladas en la presente normativa deberán cumplimentar y presentar en el Ayuntamiento una solicitud en el impreso que se les facilitará a tal efecto (Anexo I), adjuntando a la misma la siguiente documentación:

- a) Justificante expedido por el centro de tratamiento, donde se notifique haber estado como mínimo 2 meses en tratamiento.
- b) Cualquier otra documentación que la comisión informativa de Servicios Sociales pueda considerar necesaria.

Artículo 8. Presupuesto

La cantidad destinada a la ejecución de la presente convocatoria de concesión asciende a 3.000 €, imputables a la partida presupuestaria 0401.480.231.80.01.2023.

Artículo 9. Plazo de presentación



9. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurtengo abenduaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira.

10. artikulua. Frogatzeko epea eta erak

Laguntza jasotzeko, tratamendu zentroak egindako hileroko asistentzia egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte onuradunek aldezturik. Bertan, tratamendura joandako egunez gain, bakarrik ala laguntzailearekin joan den zehaztu beharko da.

11. artikulua. Ordaintzeko epea eta erak

Diru-laguntza onartu eta gero (onarpen akordioan zehaztuko da epea), hileroko ordainduko da (hilea igaro ondoren), betiere oinarri espezifiko hauetako 7. c) artikuluan aurreikusten diren frogagiriak aurkeztu ondoren.

Ordaindu beharreko diru kopurua eskatzailearen kontuan sartuko da, edo tratamendura laguntzen dion senide edo lagunaren kontuan.

Las solicitudes deberán presentarse antes del 31 de diciembre del presente ejercicio.

Artículo 10. Plazo y forma de justificación

Previo al abono de la ayuda, las personas beneficiarias deberán presentar mensualmente los justificantes de asistencia expedidos por el centro de tratamiento. En el cual, habrá que constar además de los días que ha asistido al tratamiento, si lo ha hecho con o sin acompañante.

Artículo 11. Plazo y forma de pago

Aprobada la ayuda por el período que señale el acuerdo de concesión, el abono de la misma se efectuará, previa presentación de la documentación justificativa prevista en la base 7, c) de las presentes bases específicas, con carácter mensual (mes vencido).

El pago de la cantidad se ingresará en la cuenta de la persona solicitante o en la cuenta del familiar o amigo/a que le acompañe al tratamiento.